

Funtsezko elkarteak

Gure enpresan lau bazkide gara (Kerman, Ane, Amaia eta Aida) eta bazkideok ardura ezberdinak ditugu.

Kermanek eta Amaiak arlo komertziala landuko dute, hau da, gure bezeroekin harremanak sortuko dituzte, gure zerbitzuak aurkeztu eta enpresa zabalduko dute merkatu objektiboan. **Anek** enpresaren alor administratiboa landuko du, baina finantza arloan ere arituko da. Gainera, diru sarrera bakoitzaren komisioa eta errentagarritasuna kalkulatuko ditu Azkenik, **Aida** marketing sailan egongo da, enpresaren irudia sortuko du eta gure produktuaren erakargarritasuna landuko du.

Gure zerbitzua aplikazio informatiko eta webgune baten bidez eskaintzen dugunez, informatikaren ezagutzak behar ditugu. Horretarako, kanpoko laguntza bilatuko dugu, hala nola, enpresa espezializatu batzuen laguntza edota adimen hauek dituen pertsona baten laguntza. Lehenengo ideia aukeratuko bagenu, **“Hiberus tecnologia”** enpresarekin lan egingo genuke, gure enpresaren erantzukizun sozial eta korporatibo antzekoa baitute: **ingurunearekiko konpromezua** (hondar-sorkuntza txikitzea, poluzio mota gehienak sahiestea, baliabide naturak eta energetikoen erabilera egokia izatea, ...). Bestalde, **Pertsonetikiko konpromisoa** eta Kontratu legitimoak egiten dituzte. Ezaugarri guzti hauek gure proiektuarekin bat egiten dute, beraz, aliantzak sortzeko elkarte egokia dela ikusten dugu.

